

# TAILERRAK EREMU FUNTZIONALETAN: ARABAKO ERRIOXA 2016/06/06

**Kokalekua:** Samaniego Jauregia (Laguardia)

**Iraupena:** 2 ordu eta 30 minutu

## Parte hartzaileak

Izena	Udalerría	Elkarte/Erakunde/... /
Pablo Cuesta Sampedro	Laguardia	
Jose Luis Díaz Bello	Laguardia	
José Antonio Ugarte	Laguardia	UAGA
Yolanda Armentia	Laguardia	UAGA
Iñigo Melero Alonso	Laguardia	Cuadrilla Laguardia-Rioja Alavesa
Aitor Senar Enekotegi	Samaniego-Navaridas-Leza	Agenda Local 21
Kike Fernández de Pinedo	Vitoria-Gasteiz	EHBildu-Juntas Generales
Iñaki Ullibarri	Vitoria-Gasteiz	EHBildu-Juntas Generales
J.M. Villanueva	Vitoria-Gasteiz	Diputación Foral de Alava
Blanca Casado	Baños de Ebro	Concejal de PSOE
Violeta Abad	Laguardia	Sociedad Amigos de Laguardia

## Eusko Jaurlaritzako ordezkariak

Izena	Kargua
Izaskun Iriarte Irureta	Administrazio eta Lurralde Plangintzaren sailburuordea
Rafael Sánchez Guerras	Arabako Lurralde Antolakuntzako Arduraduna

## Asistentzia teknikoa

Izena	Enpresa
Iñaki Romero Fernández de Larrea	Paisaje Transversal
Leire Zuazo Urkaregi	Inguru
Estibaliz Nanclares Medrano	Inguru

## Aurkezpena

Saioa burutuko den gelara iritsi ahala, parte hartzaileei, erregistro orria beraien datuekin betetzeko eskatzen zaie.

Izaskun Iriarte Iruretak, Administrazio eta Lurralde Plangintzaren sailburuordeak, Eusko Jaurlaritzako Ordezkariak eta asistentzia teknikoa aurkezten ditu eta parte hartzaileei bertaratzea eskertu die. Horrez gain, LAGen berrikuspenak 3 urteko iraupena izango duela adierazi du eta administrazio izapidearen mugarri nagusiak (hasiera, aurrekaria, hasierako onarpena eta behin betiko onarpena) hurrengo hiru Euskal Hiria Kongresuekin, urtero azaroan ospatzen denarekin, bat eginaraziko direla azaldu du. Parte hartze prozesuak bi esparru izango ditu, parte hartze soziala eta instituzionala. Prozesu hau, 2015eko azaroan hasi zen. Ordutik, erakunde mailako parte hartzea eta on-line bitarteko gizartearena burutu dira. Aurrez aurreko gizarte-partee hartzea 2016ko martxo eta azaro bitartean garatuko da (tailerren egutegia erakutsi du), hau da, 2016ko Euskal Hiria Kongresuan aurkeztuko den LAGen berrikuspenaren aurrerapen dokumentua baino lehen.

Tailererako proposatutako lan-lerroak ondorengoak izan dira:

1. LAGak eta beraien ondorioak azaldu
2. Landu beharreko gaiak eta lan-dinamika azaldu
3. Tailerraren emaitzak

### LAGak eta beraien ondorioak azaldu

1997an onartutako Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko legeak Euskal Herriko lurralde antolakuntzaren marko juridikoaren oinarria ezartzen du eta lurralde antolakuntzarako bitartekoak definitzen ditu. Horrela, Lurralde

Antolamendurako Gidalerroek (LAG) lurralde antolakuntzarako erreferentzia markoa ezartzen dute. Bukatzeko, LAGek lurraldean eta hiri antolakuntzan dituzten ondorioak azaldu ditu Iñakik.

### **Landu beharreko gaiak eta lan-dinamika azaldu.**

Landuko diren 5 gai nagusien azalpenak eman ditu Iñakik, baita azpigaien edo paneletan hauetariko bakoitzarentzat adierazten diren azpigalderen zertzelada batzuk ere.

- Paisaia, ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea
  - o Paisaia
  - o Ingurune fisikoaren antolamendua
  - o Klima aldaketa
  - o Babestutako Naturguneak
  - o Korredore ekologikoak
  - o Azpiegitura berde integratua
- Landa-ingurunea
  - o Landa-inguruneko garapen ekonomikoa
  - o Landa-inguruneko antolamendu fisikoa
- Hirigunea
  - o Birgaitzea eta Hiri birsorkuntza
  - o Jarduera ekonomikoa eta lurraldea
  - o Hiriz hazkundera
  - o Metropolialdeak eta transformazio ardatzak
  - o Bigarren etxebizitza eta baliabide turistikoak
  - o Mugako herriak
- Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak
  - o Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna
  - o Bide-mugikortasuna
  - o Portu, trenbide eta aireportuen mugikortasuna
  - o Talde mugikortasun multimodala
  - o Eredu logistikoa
  - o Ura

- Energia
- Zeharkako alderdiak
  - Genero ikuspegia, osasuna, euskara
  - Lurraldeen arteko harremana
  - Parte hartzea eta Gobernantza

Tailerrean zehar garatuko diren lan-dinamikak azaldu ditu Leirek:

- Talde-lana (75 minutu): Asistentzia teknikoaren argibideen arabera, parte hartzaileak taldeka banatuko dira. Talde guztiek gai guztiak (Paisaia, Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea; Landa-ingurunea; Hirigunea; Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak; Gobernantza) landuko dituzte. Gai bakoitza azpigai ezberdinetan banatuta dago. Beraz, talde bakoitzak, lehenengo gai bat aukeratu beharko du, gero gai horretako bi azpigai eta ondoren, proposatzen den galderari erantzuten saiatu beharko da. Horretarako bi panel ditu talde bakoitzak, landutako ideiak adieraziko dituztena (post it bat, ideia bat) eta landuko duten gaiari buruz oinarritzko dokumentuan datozen ideiak adierazten direna. Bi azpigai hauek landu ostean, hurrengo gaira pasako dira, zeinetan beste bi azpigai aukeratu eta landu beharko dituzten eta horrela hurrenez hurren.
- Plenaria (45 minutu). Talde bakoitzak bozeramaile bat aukeratuko du eta bera arduratuko da, gainerako taldeei bere taldean landutako ideiak azaltzeaz. Lehenengo taldeak lehenengo gairako landu dituen gaiak azalduko ditu. Ondoren, bigarren taldeak bere ideiak gehitu ditu eta horrela gainerakoak, talde guztiek, gai horri dagokion beren ideiak azaldu arte. Horren ostean bigarren gaira pasako gara. Talde guztiak gai bat azaltzen lehenak izan daitezen, bigarren taldea hasiko da bigarren gaiko ideiak azaltzen, hirugarrena hirugarren gaikoak...

### **Tailerraren emaitzak.**

Ondoren, tailerraren emaitzak azaltzen dira:

#### **1. Paisaia, Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea:**

##### **1.1. Paisaia**

- 1.1.1. Paisaiaren babesa, nekazaritza-ekoizpen eta errentagarritasunarekin bateragarria izan dadila. Izan ere, Arabar Errioxan, paisaia nekazaritza-jardueraren ondorioz da den bezalako, jarduera honek paisaiaren eraldaketa eragiten baitu.
- 1.1.2. Nekazaritza-jarduerak behar izanez gero, paisaiaren eraldaketa kontrolaturako adostutako arau argiak ezarri beharko dira.
- 1.1.3. Ondare kulturala balioan jarri behar da, trikuharriak, dolareak...
- 1.1.4. Landa-ingurunera turismo orokortua sartzearen eta paisaiaren babesaren eta ustiapenaren arteko oreka aurkitzeko modua aztertu. Paisaia, nekazaritza eta turismoa uztartzea beharrezkoa da. Batzuetan turismoak eragozpenak sortzen ditu nekazaritza-jardueran.
- 1.1.5. Kantabriako mendilerroak inplikaturako herritar/eragile guztien parte hartzearekin egindako kudeaketa Plan bat behar du.

## 1.2. Babestutako naturguneak

1.2.1.KBE-BBE-Nekazaritza eta Basozaintzako LPS lerroa bateratu

1.2.2.Ingurune naturalaren Kudeaketa Planak egin, behetik gorako parte hartzea bultzatuz.

## 1.3. Ingurune fisikoaren antolamendua

1.3.1.Upategien eraikuntza arautu. Enpresa handien interesak edo gaur egun duguna sustatu behar da?

1.3.2.Kanpoko enpresen interesak. Gaur egungo ereduak, ustiapen berri bat martxan jartzeko beharrezkoak diren 12 Ha. lursail ordaintzeko gai diren upategi handien ezarpena errazten du. Ondorioz, beharrezko da eredu honetan aldaketaren bat egitea, upategi txikiak aukeraren bat izan dezaten. Hau arautze ezberdinen bitartez egin daiteke, baina beti ere paisaia kontutan izanda. Gaur egun, soilik enpresa handiek izan ditzakete 12 Ha.. Ondorioz, ustiapen txikiak saldu egiten dira eta despoblazioa ematen da.

1.3.3.Upategi bat egiteko ez lirateke 12 Ha. eskatu beharko eta etxebizitza bat egitea baimendu beharko litzateke, beti ere nekazaritza-jarduera bati lotuta baldin badago eta erabateko dedikazioa baldin badauka.

1.3.4.Upategi bat martxan jartzeko 12 Ha. eskatzen baldin badira, upategi handiek dirua dutenez, lurra erosten dute eta ondorioz, txikiak desagertzen dira.

1.3.5.Kutsadura murriztea beharrezkoa da.

1.3.6.LAGek oinarritzkoena, herritarrek nola bizi diren, aztertu behar dute, erabilerak arautzen hasi baino lehen. Izan ere, ez dute kontutan hartu nola bizi garen eremu bakoitzean.

1.3.7.Lurzoru ez urbanizagarrian ezartzen diren jarduerak (upategi), nekazari eta uzta-biltzaileei ere aukerak emateko modua bilatu, ez soilik enpresa handiei.

1.3.8.Kantabriako mendilerroak zergatik ez dauka Kudeaketa Plan bat? Plan honetan, ekologistek, herriek... parte hartu beharko lukete. Figura legalik ez daukan ingurune natural bat denez, ez dauka kudeaketa Planik eta honek ez dauka zentsurik.

## 1.4. Orokorra

1.4.1.LAGen onarpenaren aurretik eremu funtzional bakoitzeko bizitza errealitatearen diagnostiko bat egin.

## 2. Landa-ingurunea

### 2.1. Landa-inguruneke garapen ekonomikoa

2.1.1.Gaur egungo ereduaren (Errioxako Jatorri-Deitura) aurrean eredu propioa ezarri: Arabar Errioxako ekonomia ardoan oinarritzen da eta gaur egungo ereduaren inguruko erabakiak Errioxako Jatorri-Deiturak, hartzen ditu. Erakunde hau, Arabar Errioxan interesik ez duten enpresa handiek kontrolatzen dute. Eredu propio baten aldeko apustua egin behar da, hemengo idiosinkrasia familiako upategi txikiena da. Denbora aurka dago, Arabar Errioxan sartu nahi duten enpresa indartsuak daude eta egoerak okerrera egingo baitu.

### 2.1.2. Monolaborantza ekidin eta erabilerak dibertsifikatu

## 3. Hirigunea.

### 3.1. Birgaitzea eta birsorkuntza

3.1.1. Etxe huts eta hondatu asko dago eta gainera, landa-ingurunean populazio gaztea mantentzea zaila da. Horregatik, ereduak malgutzera proposatzen da, herri txikietan existitzen ez den espekulazioari aurre egiteko jarri ziren mugak ezabatu eta etxeen banaketa ahalbidetu beharko litzateke, alde zaharreko etxeen birgaitzetik etxebizitza bat baino gehiago sortu ahal izateko eta horrela populazio gaztea mantentzeko.

### 3.2. Hiri hazkundera / Egoitza kuantifikazioa

3.2.1. Landa-lurzoruetara lotutako Golf-zelaietako lurzoru urbanoa eta etxebizitza parkeak desklassifikatu. Golf-zelaiaren ereduak ez du funtzionatu.

3.2.2. Egoitza-hazkundera landa-nukleoaren berezitasunen eta familia tamainaren aniztasunaren (gurasobakarrekoen hazkunde azkarra kontutan izan behar da) arabera kuantifikatu. Momentu honetan kalkulurako erabiltzen den metodologia orokorregia da.

3.2.3. Etxebizitzak herri txikiaren artean banatu. Etxebizitza eta jarduerak ez kontzentratu herri handietan, izan ere, dena herri handietara bideratzen da, zerbitzu eta etxebizitzak banatu gabe.

3.2.4. Herrien beharrezan oinarritu

3.2.5. Eremu funtzional bakoitzeko errealitatea aztertu

## 4. Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak

### 4.1. Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna

4.1.1. Mendi-ibiltarientzat eta orokorrean, oinezko mugikortasunerako azpiegiturak sustatu, bideen hobekuntza lanetan integratuz. Badaude mota honetako esperientzia ezberdinak, adibidez, Arabako Foru Aldundiaren obra: Lezako sendategitik Leza eta Eltziegoko herrira. Hauen gaitzespenak ez du obraren aurrekontuaren zati garrantzitsua suposatzen eta auzotarrei zerbitzu handia eman die.

### 4.2. Talde mugikortasun multimodala

4.2.1. Nukleo handien arteko lotura eginda dago.

4.2.2. Garraio publikoa bultzatu. Eraitza positiboak izan dituzten neurriak hartu dira eta lanean jarraitu behar da.

4.2.3. Ibilgailu pribatuaren erabilera murriztu behar da, batez ere lekualdatze laburretan. Laguardian barnean ogia erosten kotxez joaten da, "kultura" hori aldatu behar da.

4.2.4. Herrien arteko loturetan eskaintzaren arabeko garraio zerbitzua ezarri, baita hauen eta zerbitzu nagusien (Lezako ospitalearekin) eta zerbitzu gehienak dituzten eskualde buruaren arteko loturetan ere.

- 4.2.5. Zergatik ezin dira joan ikasleak ez direnak eskola-autobusean? Zergatik ezin dira joan kirola egitera 14 urteko umeak 13 urtekoen autobusean? Ziurrena aseguru kontua izango da, baina hau malgutu egin beharko litzateke eta horrela, baliabideak hobeto erabili.
- 4.2.6. Ziurrena, denok garraio publikoa eskatuko bagenu, hau eraginkorragoa izango litzateke eta eskaintza zabalagoa egongo litzateke.
5. Zeharkako alderdiak: Generoa, osasuna, euskara, lurraldeen arteko harremana eta parte hartzea
- 5.1. Genero ikuspegia, osasuna, euskara
- 5.1.1. Hezkuntza: eremu funtzionalean eskaera handia duen **lanbide-heziketa** (turismo, osasun eta nekazaritza sektoreetan) emateko neurriak garatu behar dira. Batez ere gero bere jarduera profesionala eremu funtzionalean garatuko baitute eta horrela, herritarrak ez lirateke eremu funtzionaletik kanpora joan beharko. LAGek eremu funtzional bakoitzerako zuzkidura ekipamenduak banatzerako orduan eremu bakoitzaren berezitasunak kontutan izan beharko litzateke. Hezkuntza, batez ere, eremu bakoitzaren ekoizpen prozesuarekin erlazionatuta egon beharko litzateke.
- 5.2. Orokorra
- 5.2.1. Zerbitzuen deszentralizazioa sustatu eremu funtzionaleko hiri-nukleoen artean, guztiei “bizitza” emateko. Azken finean, zerbitzu guztiak herri berean ez egotea, batez ere herriei bizitza ematen die banatuz. Adibidez, ogasuna herri batena, gizarte segurantzaren beste batean,... eta horrela herri guztiek bizitza dute eta ez soilik Laguardiak. Agian beste eremu funtzional batzuetan zailagoa da, baina honetan 5 edo 10 km-ri buruz ari gara eta ekipamendu hauek izateak bizitza handia ematen dio eremuari.
- 5.2.2. Parte hartzea sustatu behar da, eskualde bakoitzari etorkizunean nolakoa izan behar den galdetzetik hasiz.